



2023/2024 denboraldia

10. ZIRKULARRA

ZELAI ANEXOIA EDO NAGUSIA

Denboraldian zehar sor daitezkeen egoera nahasiak galarazteko **indarrean dagoen arautegiak, 1995eko uztailan Gipuzkoako Futbol Federazioko Batzar Nagusian aho batez onartu zenak**, ondorengo agintzen du:

“Partidaren zelai ofiziala – anexoa edo nagusia – partiden zerrenda ofizialean agertzen dena izango da. Beraz, hau aldatu nahi bada, beharrezkoa izango da bi klubuen adostasuna” .

Zelaia aldatzeko bi klubak ez badira adostasunera iristen, **nahiz eta eskaintzen den aukera egokiagoa izan, partiden zerrenda ofizialean agertzen dena errespetatu beharko da.**

Horrenbestez, Euskadiko Futbol Federakundeko Zigor-Araubidearen Araudiaren 47. artikularekin bat etorriz, kluberen batek **partida hasteari uko egiten badio, ez agertze bat bezala kontsideratuko da.**

Donostia, 2023ko irailaren 1a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General